

EAJk Mayor Orejarekin dituen harremanak hautsiko dituela iragarri du Arzalluzek

Antidemokratikoa deritzo Guardia Zibilak ideia abertzaleen aurka jo behar duela esatea


Iñaki Uriarte / Bilbo

EAJk Jaime Mayor Orejarekin hautsi eta Espainia-ko Gobernuak ministroarekin bat egitekotan harekin ere hauts dezakeela iragarri zuen Xabier Arzalluzek. EAJko lehendakariaren esanetan Mayor Orejak frontismo eta ETA-rekiko menpekotasuna leporatzen dienean alderdi abertzaleei haren estrategiaren porrota izkutatu besterik ez du nahi.

ARZALLUZEEK gogor kritikatu zue Mayor Orejak Madrilgo Oriente Plazan «Espainia fronte nazionalistatik defenditzeko obligazio demokratikoa» eman izana Guardia Zibilari. «Guardia Zibilaren armak ez dira ideia ez idazluma; Cetme, pistola eta subfusila dira. Espainia fronte nazionalistatik defenditzeko obligazio demokratikoa ezarri diote, eta logikoki hor gaude gu ere. Ez dago frontierik, baina fronte deitu nahi bazaio hor gaude gu ere».

Mayor Orejaren hitzak, «ideien kontra armak botatzeari», antidemokratikoak ezezik «totalitarioak» direla nabarmendu zuen burukide jeltzaleak. Arzalluzen ustez «egiazko mehatxu bat da guretzat». Herri Batasunako Mahai Nazionala espetxeratzeko agindua eman zutenean eginiko kritika oroitu zuen halaber. «Gizartean gauzak dauden moduan, justizia dagoen moduan, egunen batean baita besteok ere -eta gure buruari begiratzen genion- Gobernuari oztopo egiten badiogu hor dago bidea: halako giro bat sortu, argumentoak zorroztu eta azkenean epaileen eskuetan utzi. Gaur Herri Batasunari gertatzen ari zaiona geuri ere gerta dakiguke gauzak horrela badoaz».

Iñaki Anasagastirekin batera eskainitako prentsaurrekoan Mayor Orejaren hitzak bere egiten dituen argi ditzan eskatu zion Aznarren gobernuari. «Hitz hauek Madrilgo Gobernuak bere egingo balitu behartuta egongo ginateke Gobernu horrekin ere geure hartu-emanak etetera, hain zuzen ez litzatekeelako izango benetan gobernu demokratiko bat. PP



Iñaki Anasagasti eta Xabier Arzalluz atzo Bilbon eskainitako prentsaurrean.

XOUSE SIMAL

XABIER ARZALLUZ

Abertzaleen kriminalizazioa

■ ■ ■ «Gobernuari oztopo egiten dionarentzat hor dago bidea: giroa sortu, argumentoak zorroztu eta azkenean epaileen esku utzi. Gaur HBri gertatzen ari zaiona geuri ere gerta dakiguke gauzak horrela badoaz»

PP alderdia

■ ■ ■ «PP ez da erdirantz doan alderdi bat, hori kontsumo publikorakoa izango da, totalitarioa da eta mehatxu erreal bat»

ziola hiru puntuko plana: ETaren buruzagitza atxilotzea, HBren Mahai Nazionala kartzelaratzeari eta Egin ixtea. «Mahai Nazionala kartzelan sartu zuen, ez zuen lortu ETaren buruzagitza atxilotzea, nahiz eta baten bat atxilotu zuen Frantziako Gobernuari ondo ordainduta. Eta galdetu egin behar zaio ea zer lortu duen. Orain Mahai Nazional berria dago, are agilagoa, egoerari hobe moldatzen zaiona; Egin itxi zuen eta orain egunkari berri bat dago Gara, agilagoa eta garaiari egokituagoa. Hori da Mayorren politika... gutxiagotatik dimititu egin dute beste batzuk», ondorioztatu zuen.

ez da erdirantz doan alderdi bat, hori kontsumo publikorako izango da, totalitarioa da eta mehatxu erreal bat da», gaineratu zuen.

Arzalluzek oroitarazi zuen ere Mayorrenak bezalako jarrekek Ajuria Eneko Itunaren 8. puntuari muzin egiten diotela. Arzalluzek gogorarazi zuen 8. artikuluan demokratikoki defenditutako ideia guztiei lege araudian sartzeko bidea aitortzen zaiela.

Mayorren estrategiaren porrota

Arzalluzek oroitarazi zuen ministerioan sartu zenean Mayor Orejak entzun nahi izan zuen guztiari azaldu

Beldurra hemen, botoak Espainian

■ XABIER ARZALLUZEN ustez partidu espainiarrek beldurrean oinarritutako hauteskunde kanpaina egingo dute osterara ere. Hala ere, beldurraren eragina «gastatuta» dagoela nabarmendu zuen. «Maletak, kale borroka erabili dute, orain separatismoa ateratu dute, independentziara doaz eta agur», esan zuen Arzalluzek. Argudio horiek erabiliz euskal herritarrek «frogetarako untxi» gisa erabiltzen dituztela esan

zuen Arzalluzek. «Era horretan espainoleatzen dutenean tinkotasun itxura emanez Espainiatik joan nahi dutenen aurrean, Ebrotik behera hauteskunde etekinak lortzeko da. Hemen ez dago boto askorik inorentzat, alderdiak lehiatzen dira Andaluzia, Kataluña eta Valentziako boto poltsa eskuratzeko, gu erabiltzen gaituzte hango hauteskundeetarako», gaineratu zuen buruzagi jeltzaleak.

«Ministroa ez dago treguan»

■ AZAROAREN 10ean hauteskunde autonomikoen eta ETaren su etenaren ostean Espainiako Kongresuan presoak hurbiltzeko tratamendu dinamiko, malgu eta adostua onartu arren, horrelakorik egon eza gaitzetsi zuen Anasagastik. «Aurkitzen dugu Barne ministro bat treguan ez dagoena, gerran dagoena, erasokor dagoena, iraintzen ari dena».

Diputatu jeltzalearen aburuz, «Enrique Villarrek

esan duena ez da etxean entzuten duena baino. Enrique Villar ez da akusazioaren alderik ahulena baino. Akusazio hori era askoz finagoan esaten du bere nagusiak, Barne ministroak»

Anasagastiren ustez irudi okerra eman nahi dute. «Esan nahi dute Euskadin egoera ez dela aldatu, egoera biziezina dela eta hemen ez dagoela demokraziarik, egoera justu kontrakoa delan».